


Haur korapiloak

Obra lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Haur korapiloak (Haizea lotzen)

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: hainbat

Argitaletxea: Pamiela

Argitalpen data: 1997

Orrialde kopurua: 72

Laburpena

Idazleak liburuaren atarikoan diotenaren arabera “belaunean min hartzen duzunean, korapiloa bezalakoa jartzen zaizu, eta ez dizu lasterka egiten uzten. Horren antzeko korapiloak sortzen dira batzuetan sabelean, edo bihotzean, edo eztarrian, edo buruan.” Eta iduri luke minari buruzko hausnarketa negartien bilduma dela hau, edo are okerrago, kontsolamenduzko igurtziena: Ba, ez. Guztiz alderantziz da, hemengo poemek barrea eta harridura sortuko dizute, jakin-mina ere bai, eta beti-beti jolasgura.

Ohartuko zaretenez, poema narratiboak dira, mikro-istorioak, ezusteko amaierara eramanak sarri, finezia handiz emozioen lurraldeak arakatzera eramango gaituztenak.

Zergatik irakurri liburua

Poesia liburuak leiho txikiz osatutako etxeak direla esan ohi da. *Haur korapiloak* liburuko poemak, ordea, gehiago dira, leihoak bainoago, atek dira, mundua den lurralde basarako sarbide.

Jolasa eta literatura uztartzea beti da ideia ona. Jolasaren bidez ikasten dugu hobekien, eta fikziozko lurraldeetan ez ezik, poesiak hizkuntzaren barne muinetan murgiltzen laguntzen du.

Irakurri aurretik

1. Jarduera. Poema narratiboekin jolastea

Helburuak

- Poesia irakurtzeko interesa piztea
- Liburuko poemek dituzten ezaugarri formalak antzematea
- Liburuko poemek bilatzen dituzten emozioak izendatzea

Jardueraren azalpena: Poema mimikaz antzeztuko dute ikasleek.

Hasteko, irakasleak ozen irakurriko die ikasleei, eta jarraian eskatuko die arbelean emozio zerrenda bat osatzen laguntzeko. Hauek gutxienez: poza, irrika, haserrea, beldurra, tristura, harridura, lotsa, maitasuna, zoriontasuna.

Ondoren, ikastaldea 8-10 kideetan antolatuko du irakasleak. Entzun berri duten testuarekin mimikazko antzerkia egitea proposatuko die. Talde bakoitzak antzeppen osoa egin beharko duela adieraziko die, euren artean paperak banatuta: Narratzailea, pigmeoak, arbolak eta lehoia.

- “Pigmeoak (Ttikitasun korapiloak askatzeko)” (27 orr.)

*Oihaneko zuhaitz ttiki batzuek
enborrean zuloxo bana dute,
eta handik begira
pigmeokume ttiki-ttikiak daude;
pigmeokume horiek
noizean behin kanpora irten
eta lehoiak ehizatzen dituzte.*

2. Jarduera: poesiaren irakurketa ozena

Helburuak

- Poesia irakurtzeko interesa piztea
- Irakurketa ozena: ezaugarri prosodikoen kontzientzia piztea

Jardueraren azalpena: Irakasleak poema ozen irakurriko du.

Bi irakurraldi mota erabiliko ditu: neutroa eta hanpatua. Irakurraldi neutroak aseptikoa izan behar du, enfasirik gabea, emoziorik gabea. Irakurraldi hanpatua egitean, aldiz, hitzen eta esaldien esanahia azpimarratzen ahaleginduko da irakaslea. Beharrik, helburua ez da pailazoarena egitea, baizik eta ahozkoan egiten ditugun ahots modulazioak azpimarratzea.

Ondoren, poema buruz ikasi eta errezitatzeko eskatuko zaie ikasleei. Irakaslearen esku egongo da ikasle bakoitzari poema osorik ikasteko eskatzea, edo taldeka egitea, poema zatiak ikasleen artean banatuta.

- **“Erreka gozozalea”** (32 orr.)

*Nire herriko erreka
zeharo gozozalea eta bihurria da.
Bero handia egiten duenean
irten bere bidetik
kaleetan zehar joan
eta izozki-dendara sartzen da
bainilazko eta txokolatzeko
izozki baten eske.*

3. Jarduera: liburuaren aurkezpena

Helburua.

- Poesia liburu baten egitura ezagutzea

Jardueraren azalpena: Irakasleak liburuaren azala erakutsiko die ikasleei eta aurreko bi poemak bertatik atera dituela azalduko die. Jarraian hipotesiak botatzeko eskatuko die, liburuaren mamiari buruz: Zeri buruzko liburu izango da? Nortzuk izango dira protagonistak? Eta antzeko galderak eginez. Ondoren liburuaren egitura aurkeztuko die: zenbat poema dituen guztira (56), eta zenbat irakurriko dituzten hurrengo egunetan (12). Era berean, irakasleak liburuako poema guztiak istorio laburtxoak direla azalduko die, mikroipuinak. Azkenik, zerrendatu berri dituzten emozioak irakurraldietan zehar sentitzeko aukera izango dutela iragarriko die.

Irakurri bitartean

Liburua irakurri bitartean egingo diren jardunen azalpen orokorra

Ekintza nagusia poemak ozen irakurtzea izango da, eta, egokiera dagoenean, buruz ikastea. Helburu nagusia ahoskera lantzea izango da, eta garrantzi berezia emango zaio esanahiaren eta esateko moduaren artean dagoen loturari. Jakina, ariketa hauetan guztietan irakaslea nahitaezko eredu emaile izango da. Dena den, irakasleak ez du aparteko ezer egin beharko, poema bakoitza ongi eta garbi nola ahoskatzen den adieraztea baino, betiere esanahiaren eta esateko moduaren arteko lotura azpimarratzeko. Jarduna errazteko, erabilgarria izan daiteke irakurketaren une batean poema zein emozioarekin lotuko luketen hausnarraraztea.

Liburuko 12 poema aukeratu dira, eta hirunaka multzokatu dira. Egunean poema batekin aritzea proposatzen da. Beraz, hiru eguneko zikloak osatuko dira, komeni den bezala txandakatuta. Adib: astelehen, asteazken eta ostiraletan, eta irakurraldia lau astetan zehar (hilabete bat?) luzatuko da. Poema hirukote bakoitzean, azken poemarekin jarduera berezi bat proposatu da.

Irakasleentzako baliabideak.

Gustura arituz gero, irakaslearen esku egongo liburuko gainerako poemekin irakurraldia luzatzea. Sorkuntza ariketa berrien iturri oparoa izango du teoria liburu honetan: Arranz, Iñaki: *Hitza azti*. Alberdania, 2006

Hau izango da poema guztiak irakurtzeko prozedura:

- Aurkezpena (I): Irakasleak poema ozen irakurriko du, era neutro batean.
- Aurkezpena (II): irakasleak poema diktatu eta ikasleek koadernoetan jaso
- Ulermena (I): hitz edota pasarte ilunak argituko dira.
- Ulermena (II): irakasleak poema berriz irakurriko du, ahoskera hanpatuta, esanahiak azpimarratzeko.
- Zenbat esaldi, hainbat boluntario (praktika I):
 - Ikasleek dagokien esaldia irakurriko dute, poema osatzeko.
 - Ikasleek dagokien esaldia buruz errezitatuko dute, poema osatzeko.
- Errezitaldi librea (praktika II):
 - Inor prest balego (ikasle zein irakasle), poema osoa buruz errezita lezake.

1. Jarduera.

Helburua.

- Poesiak interesa piztea
- Irakurketa ozena: ezaugarri prosodikoen kontzientzia piztea
- Irakurketa ozena: esanahiaren eta esateko moduaren arteko lotura nabarmentzea
- Errezitaldia: esaldiak buruz ikastea

Jardueraren azalpena: Irakurri hiru poemak arestian ezarri dugun eran. Gogoratu hirugarren poemarekin sormen ariketa bat dugula, gehigarri.

1.1. “Gizon sudurrandia” (23 orr)

*Gizon sudurrandiak okerreko sudurra dauka
sudur hori ez da-eta haren aurpegiari dagokiona.
Gizon sudurrandia okerreko etxebizitzan bizi da
erosia zuen etxea ez baitzuen inon ere aurkitu.
Gizon sudurrandia okerreko bidetik ibiltzen da beti
inoiz ez daki-eta nora doan.
Gizon sudurrandiak oker egiten du lana ere
beti garaiz kanpo baitabil.
Gizon sudurrandiak, ordea, okerreanean ere
ez du inoiz okerreko ametsik egiten.*

1.2. “Dena askatzen zuen neska ttikia” (39 orr.)

*Neska ttiki batek
edozer askatzeko tresna bat asmatu zuen
eta inguruko mendi guztiak askatu zituen,
eta itsasertzeko haitzak,
eta harresi handiak...*

*Azkenean, kendu egin behar izan zioten
tresna askatzailea.*

*Gaur egun tresna hori
ametsen museoan dago
zazpi sarrailez giltzaturik.
Museoak Sesamo du izena.*

1.3. **“Gure aitona (limerick)”** (47 orr)

Irakurketa ariketa guztiak egin ostean, hirugarren poema honekin marrazki bat egitea proposatuko du irakasleak. Honela:

- Zutik dagoen orrialde batean irudikatu marra bat, baina ez marraztu. Soilik irudikatu marra bat, goitik behera, ez ezkerraldean ezta eskuinaldean ere, baizik eta erdi-paretsu.
- Marraren goiko aldean izarrak marrazten hasi, eta gero zabaldu izarren multzoa, orrialdea aldenik alde hartzen duten arte.
- Beherago aitona marraztuko dugu. Irudikatutako marraren parean, izarrak baino dezente beherago, orrialdearen erditik behera. Aulki batean eserita egongo da aitona, burua okertuta, belarri handi bat goraka duela, antena paraboliko batekin bezala, izarrak entzuten; beste belarria, txikia, beheraka dauka, atomoak zer dioten aditzeko.
- Zoruan atomoak leudeke, baina ikusezinak direnez, hautsa marraztu beharko dugu, edo belarra, edo bururatzen zaigun beste edozein zoru mota.
- Kolorea ematea hautazkoa da, ingurunea jartzea ere bai.

*Gure aitonari belarri bat zitzaion handitu
eta bestea, alderantziz, ttikitu.
Handiaz entzuten zituen izarren albisteak;
ttikiaz, berriz, atomoen txisteak.
Entzundakoarekin egunkari bat zuen izkribitu.*

2. Jarduera

Helburuak.

- Poesiak interesa piztea
- Irakurketa ozena: ezaugarri prosodikoen kontzientzia piztea
- Irakurketa ozena: esanahiaren eta esateko moduaren arteko lotura nabarmentzea
- Errezitaldia: esaldiak buruz ikastea

Jardueraren azalpena: Irakurri hiru poemak arestian ezarri dugun eran. Gogoratu hirugarren poemarekin sormen ariketa bat dugula, gehigarri.

2.1. **“Oinetan lokarri (Eta bihotzean korapilo)”** (11 orr.)

*Oinetakoak lotu eta askatu
aritu da haur bakartia
arratsalde osoan, isilik.*

*Zaintzen duen neskak
irribarre egin dio, harriturik.*

*Atea jo dute; nor ote?
Haurrak bere lanari utzi dio.*

Atean amaren aurpegia agertu da.

*Haurrak lanari ekin dio berriro;
Oraingoan, bihotzeko
korapiloa askatu du.*

2.2. **“Inuitak (eskimalak)”** (43 orr.)

*Inuit batek jalan zuloa egin
eta amua bota zuen;
amua trabatu eta inuita
tira eta tira hasi zen
baina ezin.*

*Beste inuit bat joan
zitzaion laguntzera
baina ezin.*

*Beste bat ere agertu zen
eta beste bat eta beste bat...
baina ezin.*

*Han bildu ziren milaka inuit
amuari tira eta tira, ilaran...
eta Lurra irauli zuten
eta ipurdiz gora jarri.*

2.3. “Lapurdin (limerick)” (54 orr.)

Irakurketa ariketa guztiak egin ostean, hirugarren poema honekin hiztegi jolasak egingo ditugu. Testuak “fularmonika” hitz-asmatua proposatu digunez, jolas gaitezen gehiago sortzera.

Jolasa abiatzeko irakasleak hitz sorta bat proposatuko die ikasleei, silaben ordena aldatuta, esanahia aldatzen dutenak. Txikitan azkar esatera jolasten genuen eran (monja/jamón) Adib: arbel/belar, ahul/lau, barre/arreba, marra/hamar, zapo/poza, tukan/kantu, irudi/diru, xolomo/moxolo, xake/kexa, alboka/kalbo, labur/burla, mago/goma, txalo/lotsa,... Bikote gehiago nahi badira, jo iturrira: Añorga, Peio. *Gure hiztegi magikoa*. Aizkorri, 2012

*Lapurdin ba omen zen Axular bat;
lepoan eramaten zuen fular bat.
Behin, igo zen globoan
Eta Ameriketaraino joan.
Fularmonika joz irabazi zuen dolar bat.*

Oharra: Jolasgura amaitu ez bada, poema honek badu antzeko egitura duen kanta-jolas bat, ariketa borobiltzeko proposa izan daitekeena:

*Behin omen zen jaun zahar bat,
egin omen zuen puzker bat
Joan omen zen baratzera
Jan omen zuen aza
Egin omen zuen kaka berde-berdea.
Hura norentzat?
Ahoa zabaltzen duenarentzat.*

*Behin omen zen jaun zahar bat,
egin omen zuen puzker bat
Joan omen zen dendara
Jan omen zuen lanpara
Egin omen zuen kaka argi-argia.
Hura norentzat?
Begiak zabaltzen dituenarentzat.*

*Behin omen zen jaun zahar bat,
egin omen zuen puzker bat
Joan omen zen mendira
Jan omen zuen marrubia
Egin omen zuen kaka gorri-gorria.
Hura norentzat?
Aurrena mugitzen denarentzat.*

*Behin omen zen jaun zahar bat,
egin omen zuen puzker bat
Joan omen zen eskolara
Jan omen zuen arkatza
Egin omen zuen kaka luze-luzea.
Hura norentzat?
Aurrena hitz egiten duenarentzat.*

Iturria: Igerabide, Juan Kruz. “Behin omen zen jaun zahar bat”. *Begira begira*. Hainbat egile: Elkar, 2006. 6-7 orr.

Helburuak

- Poesiak interesa piztea
- Irakurketa ozena: ezaugarri prosodikoen kontzientzia piztea
- Irakurketa ozena: esanahiaren eta esateko moduaren arteko lotura nabarmentzea
- Errezitaldia: esaldiak buruz ikastea

Jardueraren azalpena: Irakurri hiru poemak arestian ezarri dugun eran. Gogoratu hirugarren poemarekin sormen ariketa bat dugula, gehigarri.

3.1. **“Mutiko mukitsua (limerick)”** (48 orr.)

*Bazen behin mutiko bat, mukitsua oso;
beti zintza eta zintza aritzen zen eroso.
Behin, hain zintza gogorra egin zuen,
non sudur erdiko hezurra atera baitzuen.
Sudurzulo bakarra gelditu zitzaion, handia oso.*

3.2. **“Amodio poema 2”** (60 orr.)

*Neskatxa bihurriak
goxokiz apaintzen ditu
belarriak.*

*Neskatxa kuttunak
goxokiz eginik dauzka
lepoko idunak.*

*Neskatxa gona gorrikoak
goxokiz lotzen ditu
gerrikoak.*

*Eta zergatik? Eta zertarako?
Maite duen mutila
goxokijale amorratua delako.*

3.3. **“Barre egin nahi nuke (Larritasun korapiloa)”** (13 orr.)

Irakurketa ariketa guztiak egin ostean, LIPOGRAMAK egingo ditugu. Lipograma bat egitea da testu bat idaztea, letra debekatu bat ezarrita. Gure lipograma egiteko, ikasleei “Barre egin nahi nuke” poema berridaztea proposatuko diegu. Zein letra debekatuko dugu lipograma osatzeko? Testuinguruak erabaki dezala. Ikasleen hizkuntza-gaitasun mailaren arabera jokatu dugu. Kontsonanteak zein bokalak debeka daitezke, baina, normalean bietako bat debekatzen da, edo kontsonanteak (errazagoa) edo bokalak (zailagoa). Era berean, bokal bakarria debekatu ohi da, eta, kontsonanteekin aritzekotan, bizpahiru debekatzera irits liteke. Halere, gogoratu helburua ongi pasatzea dela.

*Barre egin nahi nuke
bizikletaren gurpila zortzi egin zaidalako.
Barre egin nahi nuke
lurrera zilipurdika joan naizelako.
Barre egin nahi nuke
eskuak eta belaunak urratuta ere.
Barre egin nahi nuke
baina ezin dut.
Eta negarrik ere ezin dut egin.*

*Airezko erraldoi indartsu batek
bultzatu nau,
eta hor egongo da
niri begira, begiak zabal-zabal.*

4. Jarduera

Helburua.

- Poesiak interesa piztea
- Irakurketa ozena: ezaugarri prosodikoen kontzientzia piztea
- Irakurketa ozena: esanahiaren eta esateko moduaren arteko lotura nabarmentzea
- Errezitaldia: esaldiak buruz ikastea

Jardueraren azalpena: Irakurri hiru poemak arestian ezarri dugun eran. Gogoratu hirugarren poemarekin sormen ariketa bat dugula, gehigarri.

4.1. **“Ekaitz aurre (eguraldi txarraren korapiloa)”** (17 orr)

*Mendia dator nigana,
elefante bat da,
elefantea da;
euri usain gozoa
gorputzean darama,
elefante bat da,
elefantea da;
globo antzera gora joan
eta astindu du bizkarra:
elefantea da,
hodei handi bat da.*

4.2. **“Amodio poema 6”** (63 orr)

*Penak elefanteak dira
eta bizkarrean jartzen zaizkizu.*

*Pozak zaldiak dira
eta oinetan eragiten dizute.*

*Amodioa inurriak dira
eta gorputz osora zabaltzen zaizkizu.*

4.3. **“Gozozaleentzat”** (31 orr)

Irakurketa ariketa guztiak egin ostean, ipuin bat idazteko eskatuko die irakasleak. Sortu beharreko ipuinaren helburua poema bera justifikatzea izango da: lurraldearen zer-nolakoak (zergatik da janarizkoa?), biztanleak (denak erraldoi? Euretako batzuk janari?), zein den arazoa (erraldoiak mendia jatea?), nor den heroia,...

*Esnemami mendi bat,
eta hara igotzeko
tarta eskailera bat.
Esnemami mendia
eta eztizko erreka
handik behera.
Esnemami mendia
eta anpolai-goxokiak
argia egiten.
Esnemami mendia
eta erraldoi bat
bere ahotzar handiaz
mendi osoa jaten.*

Irakurri ondoren

Azken Jarduera.

Helburuak.

- Literatur sorkuntza: poemek dituzten ezaugarri formalekin esperimentatzea
- Literatur sorkuntza: emozioekin esperimentatzea poemen bidez
- Literatur sorkuntza: euskarari antzematen dizkioten ezaugarri semantikoak eta prosodikoak erabiltzea
- Literatur sorkuntza: liburu kolektibo bat sortzea

Irakurri osteko ariketa gisa haurrak poesia idazten jarriko ditugu, eta ekarpen guztiekin liburu bat osatuko dugu. Hiru baliabide eskainiko dizkiegu euren sorkuntza pizteko:

- “Haur korapiloak” liburuko ilustrazioak.
- Mikroipuinak idatzi beharko dituzte.
- Emozio bat adierazi beharko dute poeman zehar.

Taldeka edo bakarka idatzi ahalko dute. Ariketa bideratzeko prozedura, jarraian proposatutakoa izan daiteke:

- Irakasleak liburuko hainbat irudi haurren eskura jarriko ditu, eta irudiek sorrarazitako emozioak idatziz jasotzeko eskatuko die.
- Atzera marrazkiak adi begiratzeko eskatuko die, oraingo honetan marrazkietan ikusten dituzten gauza, ekintza eta bestelakozen zerrenda heterodoxo bat egiteko. Helburua, mikroipuin baten gidoia eratzeko materiala sortzea izango da.
- Ipuinari dagokionez, 6 eta 12 esaldi bitarteko luze-laburra izango duela proposatuko die irakasleak.
- Irakasleak, lanaren aurrerapenaren behaketa egiten duen bitartean gogoan izango du esaldi bakunak hobestea, esaldi konposatuak saihestea iradokiko du, eta, oro har, ikasleek sinpletasunera jo dezaten ahaleginduko da.
- Ikasleek nola halako ipuina idaztea lortu dutenean, irakasleak testua lerroka idazteko eskatuko die. Eta idazketaren azken faseari ekiteko eskatuko die: esaldien luzera, errimak, hoskidetasunak eta bestelako ezaugarri semantiko, estetiko eta prosodikoak behatzen jarrita.
- Une honetatik aurrera prozesuak ez du amaiera jakinik, sorkuntza lana amaitutzat emango da, sortzaileak hala erabakitzen duenean.
- Poemak bildu, amaituta daudenean, eta gelako liburua osatu.
- Amaiera gisa eskolako komunitateko gainerako kideei aurkezpena egin.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.